

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 2009/41/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2009ko maiatzaren 6koa, genetikoki eraldatutako mikroorganismoen erabilera konfinatuari buruzkoa.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «*DIRECTIVA 2009/41/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 6 de mayo de 2009, relativa a la utilización confinada de microorganismos modificados genéticamente*» (Diario Oficial de la Unión Europea, L 125 de 21/05/2009)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2009/41/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena,

2009ko maiatzaren 6koa,

genetikoki eraldatutako mikroorganismoen erabilera konfinatuari buruzkoa

(bertsio bategina)

(Testu egokia EEEren ondorioetarako)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Trataturia eta, bereziki, haren 175. artikuluko 1. paragrafoa aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute [1],

Eskualdeetako Komiteari aurrez kontsulta egin zaio,

Tratatuko 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraitu diote [2],

Hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Kontseiluaren 90/219/EEE Zuzentarauak, 1990eko apirilaren 23koak, genetikoki eraldatutako mikroorganismoen erabilera konfinatuari buruzkoak [3], funtsezko aldaketak izan ditu zenbait alditan [4]. Zuzentaru horren aldaketa berrien ildotik, komeni da, argitze aldera, zuzentaraua bategitea.

(2) Tratatuaren arabera, Erkidegoak ingurumenari buruz izango duen jarduna prebentzio-neurriak hartzean oinarrituko da eta, besteak beste, ingurumena zaintzea, babestea eta hobetzea izango du helburu, pertsonen osasuna babestez gain.

(3) Erkidegoaren lehentasunezko jardun-esparrua izan behar du bioteknologiaren erabilera ebaluatzeko eta hobetzeko neurriak hartzea, ingurumenarekiko duen harreman zainduz.

(4) Bioteknologiaren garapenak estatu kideen ekonomia-hedapena bultzatuko du. Horrek esan nahi du genetikoki eraldatutako mikroorganismoak (GEM) zenbait motatako eta eskalatako eragiketetan erabiliko direla.

(5) GEMen erabilera konfinatua egingo da, giza osasunean eta ingurumenean izan ditzakeen eragin negatiboak mugatuz; eta behar besteko arreta eskaini beharko litzaieke istripuen prebentzioari eta hondakinen kontrolari.

(6) Herritarrekin eta ingurumenarekin duten kontaktua mugatzeko konfinamendu-neurri espezifikoak buruzko antolamendu egokirik gabe baztertzaren diren GEMak ez dira zuzentaru honen aplikazio-eremuan sartzen. Baina, Erkidegoko beste arau batzuk ezarri ahalko zaizkie; esaterako: 2001/18/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2001eko matxoaren 12koa, ingurumenean genetikoki eraldatutako organismoak nahita askatzeari buruzkoa [5].

(7) Estatu kide baten ingurumen-eremuan askatzen badira erabilera konfinatua egiten ari diren bitartean, mikroorganismoak ugaltu eta hedatu egin daitezke, nazioko mugak zeharkatuz eta, ondorioz, beste estatu kide batzuei eraginez.

2009/41/EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 125 2009/05/21ekoa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- (8) Erkidego osoan bioteknologiaren garapena segurua izan dadin, beharrezkoa da zenbait neurri erkide onartzea, GEMen erabilera konfinatuarekin zerikusia duen edozein eragiketetan gerta daitezkeen arriskuak ebaluatzeke eta murrizteko; komeni da, horrez gain, erabileraren baldintza egokiak zehaztea.
- (9) GEMen erabilera konfinatuari lotutako arriskuen berezko izaera eta arrisku-eskala oraindik ez dira guztiz ezagutzen, eta eragin dezaketen arriskua kasuz kasu aztertu behar da. Giza osasunean eta ingurumenean eragin dezaketen arriskuak ebaluatzeke, beharrezkoa da arriskuak baloratzeko baldintza batzuk ezartzea.
- (10) GEMen erabilera konfinatua eskatzen duten jarduerak giza osasunean eta ingurumenean izan dezaketen arriskuen arabera sailkatu behar dira. Sailkapen hori nazioarteko praktiken arabera izango da, eta arriskuen ebaluazio batean oinarrituko da.
- (11) Babes handia bermatzeko, konfinamendu-neurriek eta erabilera konfinatuari aplikatutako bestelako babes-neurriek bat etorri behar dute erabilera konfinatuaren sailkapenarekin. Ziurrak ez diren egoeratan, konfinamendu-neurri egokiak eta goi-mailako sailkapenaren arabera beste babes-neurri batzuk ezarriko dira, datu egokiaren bidez hain murriztaileak izango ez diren neurriak frogatu arte.
- (12) GEM erabiltzen den jarduera guztietarako, indarrean egongo dira, Europako Erkidegoaren xedapen juridikoen arabera, praktika mikrobiologiko onen printzipioak eta lantokiko segurtasun- eta higiene-printzipioak.
- (13) Konfinamendu-neurri egokiak ezarri behar dira eragiketa baten zenbait fasetan, GEMen erabilera konfinatuan sortutako materialen emisioa eta deuseztapena kontrolatzeko eta istripurik ez gertatzeko.
- (14) GEM baten erabilera konfinatua egiteko berariazko instalazioak lehenengoz erabiltzeko asmoa duen pertsona orok agintari eskudunari jakinarazi behar dio jarduera horri ekitear dela; eta agintariak jarduera garatzeko proposatutako instalazioak egokiak direla ziurtatuko du, giza osasunerako eta ingurumenerako arriskutsuak ez direla aztertu eta gero.
- (15) Horrez gain, beharrezkoa da prozedura egokiak ezartzea, GEMen erabilera konfinatua eskatzen duten eragiketa espezifiko bakoitzaren berri emateko, izan dezaketen arrisku-maila kontuan hartuta.
- (16) Arrisku handiak izan ditzaketen eragiketetan, agintari eskudunak baimena eman beharko du.
- (17) Konfinamendu-neurriak eta erabilera konfinatuari aplikatutako bestelako babes-neurriak aldi-aldi berrikusi behar dira.
- (18) Komenigarria izan daiteke jendeak GEMen erabilera konfinatuari buruz duen iritzia aztertzea.
- (19) Erabilera konfinatuetan esku-hartzen duten pertsonen iritzia aztertu behar da, dagokion Erkidegoko legediaren baldintzen arabera, bereziki Kontseiluaren 2005/54/EE Zuzentaraua, 2000ko irailaren 18koa, lanean ari diren bitartean langileak agente biologikoetatik babesteari buruzkoa (Zazpigarren Zuzentarau espezifikoa, 89/391/EEE Zuzentaruaren 16.artikuluko 1. paragrafoari jarraiki) [6].
- (20) Neurri egokiak hartu behar dira, istripu bat izan dezaketen pertsonen segurtasunari buruzko alderdi guztien berri emateko.
- (21) Larrialdi-planak prestatu behar dira, istripua gertatzen bada eraginkortasunez jokatzeko.
- (22) Istripu bat gertatzen bada, erabiltzaileak berehala ohartaraziko dio agintari eskudunari; beharrezko informazioa emango dio, istripu horren eraginak ebaluatu eta neurri egokiak har ditzan.
- (23) Komeni da Batzordeak, estatu kideei jakinarazita, istripuei buruzko informazioa trukatzeko prozedura bat antolatzea eta istripu horien erregistro bat eratzea.
- (24) GEMen erabilera konfinatua Erkidego osoan kontrolatu behar da; horretarako, estatu kideek informazioa eman behar diote Batzordeari.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(25) Giza osasunerako eta ingurumenerako seguruak direla esateko, GEMek II. eranskinen B zatian agertzen diren irizpideak bete behar dituzte. Bioteknologiaren aurrerapenetara egokitzeko, eta irizpideen izaera eta zerrendatutako eremuaren esparru murrizta aintzat hartzeko, komeni da Kontseiluak irizpide horiek berrikustea eta, hala balegokio, irizpideak nola aplikatu behar diren jakiteko argibide batzuk ematea.

(26) Zuzentarau hau betetzeko beharrezko neurriak onartu behar dira, Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/EE Erabakiari jarraiki; hau da, Batzordeari esleituriko eskumenak baliatzeko prozedurak ezartzen dituen erabakiari jarraiki [7].

(27) Komeni da, bereziki, Batzordeari eskumenak ematea, II., III., IV. eta V. eranskinak aurrerapen teknikora egokitzeko beharrezko aldaketak egin ditzan, eta II. eranskinen C zatia egokitu dezan. Neurri horiek orokorrak eta zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldaraztekoak direnez gero, 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluan agindutako kontrol-dun arautze-prozedura betetzeko hartu behar dira.

(28) Zuzentarau honetan sartutako elementu berriak komitearen prozedurak baino ez dira. Horrenbestez, ez da beharrezkoa estatu kideek transposizioa egitea.

(29) Zuzentarau honek ez du eraginik estatu kideen betebeharren gainean, ez behintzat VI. eranskinen B zatiko zuzentarrak estatuko zuzenbidean sartzeko epeari dagokionez.

HONAKO ZUZENTARAU HAU EMAN DUTE:

1. artikulua

Zuzentarau honek genetikoki eraldatutako mikroorganismoen erabilera konfinaturako neurriak ezarri ditu, giza osasuna eta ingurumena babesteko.

2. artikulua

Zuzentarau honi dagokionez, definizio hauek hartuko dira oinarri:

a) "mikroorganismoa" : edozein izaki mikrobiologiko, zelularra edo ez, ugaltzeko edo material genetikoa transmititzeko gai dena, birusak, biroideak eta animalia-zelulak zein landutako landare-zelulak barne;

b) "genetikoki eraldatutako mikroorganismoak" (GEM) :

edozein mikroorganismoaren material genetikoa estalketan edo birkonbinazio naturalean modu naturalean gertatzen ez den eraldatua izan denean; definizio honi dagokionez:

i) genetikoki eraldatzen da, gutxienez, I. eranskinen A zatian agertzen diren teknikak erabiltzen direnean,

ii) kontuan hartuko da I. eranskinen B zatian azaldutako teknikek ez dutela genetikoki eraldatzeko aukerarik ematen;

c) "erabilera konfinatua" : mikroorganismoak genetikoki eraldatzeko edo GEMak lantzeko, gordetzeko, erabiltzeko, garraiatzeko edo suntsitzeko, edota ezabatzeko zein beste modu batean erabiltzeko edozein jarduera, baldin eta, jarduera horretan, konfinamendu-neurri espezifikoak baliatzen dira herritarrekin eta ingurumenarekin duten kontaktua mugatzeko eta segurtasun-maila handia emateko;

d) "istripua" : edonolako jazoera, erabilera konfinatua izan bitartean GEMen askapen esanguratsua eta nahi gabekoa dakarrena eta, uanean bertan zein geroago, giza osasunerako edo ingurumenerako arriskutsua izan daitekeena;

e) "erabiltzailea" : GEMen erabilera konfinatuaz arduratzen den edozein pertsona fisiko zein juridiko;

f) "jakinarazpena" : estatu kide bateko agintari eskudunari eman beharreko informazioa duten dokumentuen aurkezpena.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

3. artikulua

1. 4. artikuluko 1. paragrafoan aipatutakoaren kalterik gabe, zuzentarau hau ez da aplikatuko:

a) eraldaketa genetikoak II. eranskineko A zatian agertzen diren tekniken edo metodoen bidez egiten denean;

b) Giza osasunerako eta ingurumenerako segurtasuna arautzen duen II. eranskineko B zatian bildutako irizpideak betetzen dituzten GEM motak besterik ez dituzten erabilera konfinatuetan, . Mota horietako GEMak II. eranskineko C zatian sartuko dira.

2. Ez zaie aplikatuko 4. artikulua (3. eta 6. paragrafoak) eta 5etik 11rako artikulua GEMen errepideko, trenbideko, ibaiko, itsasoko edo aireko garraioei.

3. Zuzentarau hau ez zaie aplikatuko GEMen metaketari, laborantzari, garraioari, suntsipenari, ezabatzeari ez eta erabilerari ere; izan ere, 2001/18/EE Zuzentarauaren arabera edo zuzentarau horretan araututakoaren antzeko ingurumenerako arrisku berezien ebaluazioa eskatzen duen Erkidegoko beste arau baten arabera merkaturatu dira; betiere, erabilera konfinatua merkaturatzeko baimen edo onarpenaren baldintzetara egokitzen bada, hala egonez gero.

4. artikulua

1. Estatu kideek neurriak hartuko dituzte GEMen erabilera konfinatuaren ondorioz giza osasunean eta ingurumenean eragin negatiborik ez izateko.

2. Horretarako, erabilera konfinatuek giza osasunerako eta ingurumenerako zer arrisku izan dezaketen ebaluatuko du erabiltzaileak. Kontuan izango ditu, gutxienez, III. eranskineko A eta B ataletan onartutako ebaluazio-elementuak eta prozedura.

3. Aukera izango da, 2. paragrafoko ebaluazioaren bidez, erabilera konfinatuen azken sailkapena egiteko, eta lau mota bereziko dira, III. eranskinean araututako prozedura aplikatuz. Horrek zenbait konfinamendu-maila esleitzeko aukera emango du, 5. artikuluan ezarritakoaren arabera.

1. mota: Arrisku-jarduera baliogabeak edo ezdeusak; hau da, giza osasuna eta ingurumena babesteko, konfinamenduaren 1. maila nahikoa duten jarduerak.

2. mota: Arrisku txikiko jarduerak; hau da, giza osasuna eta ingurumena babesteko, konfinamenduaren 2. maila nahikoa duten jarduerak.

3. mota: Nahiko jarduera arriskutsuak; hau da, giza osasuna eta ingurumena babesteko, konfinamenduaren 3. maila nahikoa duten jarduerak.

4. mota:

Arrisku handiko jarduerak; hau da, giza osasuna eta ingurumena babesteko, konfinamenduaren 4. maila nahikoa duten jarduerak.

4. Proposatutako erabilera konfinaturako mota egokiena zein den argi ez dagoenean, babes-neurririk zorrotzenak hartuko dira, non eta ez dagoen, agintari eskudunaren adostasunez, neurri apalagoak ezartzeko nahikoa arrazoi. .

5. 2. paragrafoko ebaluazioak arrisku horiek ezabatzeari dagokiona izango du bereziki kontuan. Hala badagokio, beharrezko segurtasun-neurriak aplikatuko dira giza osasuna eta ingurumena babesteko.

6. Erabiltzaileak 2. paragrafoan azaltzen den ebaluazio-erregistro bat eramango du eta agintari eskudunari aurkeztuko dio modu egokian, 6., 8., eta 9. artikuluetako jakinarazpenaren zati gisa edo agintari horrek hala eskatuta.

5. artikulua

1. Erabiltzaileak printzipio orokorrak eta konfinamendu-neurriak aplikatu beharko ditu, bai eta erabilera konfinatu motari dagozkion IV. eranskineko 2. puntuan azaldutako beste babes-neurri egoki batzuk ere, lantokiak eta ingurumenak GEMen arriskurik ahalik eta txikiena izan dezaten eta segurtasun-maila altua bermatzeko, IV. eranskineko 2. paragrafoak beste neurri batzuk aplikatzeko aukera ematen dutenean izan ezik.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2. Aldian-aldian berrikusiko dira 4. artikuluko 2. paragrafoan azaltzen den arriskuaren ebaluazioa, konfinamendu-neurriak eta aplikatutako gainerako babes-neurriak, bai eta egoera hauetan ere:

a) aplikatutako konfinamendu-neurriak jada egokiak ez direnean edo erabilera konfinatuen mota jada zuzena ez denean, edo

b) ezagutza zientifiko eta tekniko berriak ikusita, ebaluazioa jada egokia ez dela pentsatzeko arrazoiak daudenean.

6. artikulua

Instalazio jakin batzuk lehenengoz erabilera konfinatuetarako erabili behar dituztenean, erabiltzaileak, aurretiaz, jakinarazpen bat aurkeztu beharko dio agintari eskudunari, eta, bertan, gutxienez, V. eranskineko A zatian azaltzen den informazioa eman beharko du.

7. artikulua

6. artikuluko jakinarazpenaren ondoren, 1. motako hurrengo erabilera konfinatuak berehala jar daitezke abian, inolako jakinarazpenen beharrik gabe. 1. motako GEMen erabiltzaileek 4. artikuluko 6. paragrafoan onartutako ebaluazio-erregistroa eduki behar dute, eta erregistro hori agintari eskudunari eman beharko diote, agintari eskudunak hala eskatzen dienean.

8. artikulua

1. Beharrezko izango da V. eranskineko B zatian adierazitako informazioa jasoko duen agiria aurkeztea 6. artikuluan jakinarazten diren instalazioetan 2. motako edo hurrengo motetako erabilera konfinatuak egiteko, diren lehenbizikoak nahiz hurrengoak.

2. Instalazioei buruz 2. motako edo hurrengo motetako jarduera konfinatuei dagokien jakinarazpena egin bada eta baimena lortzeko baldintzak betetzen badira, 2. motako erabilera konfinatua berehala jarri ahalko da abian, jakinarazpen berria egin ondoren.

Hala ere, eskatzaileak berak baimen formala eska diezaioke agintari eskudunari, eta hark erabaki bat hartu beharko du 45 eguneko epean, jakinarazpena hartzen den egunetik kontatzen hasita.

3. Instalazioei buruz aurretiaz ez bada 2. motako edo hurrengo motetako erabilera konfinatuei dagokien jakinarazpenik egin, 2. motako erabilera konfinatua 45 eguneko epean jar daiteke abian, 1. paragrafoan adierazitako jakinarazpena aurkezten den egunetik kontatzen hasita, agintari eskudunak kontrakoa esaten ez badu, edo, lehenago, agintari eskudunak hala egiteko baimena ematen badu.

9. artikulua

1. Beharrezkoa izango da V. eranskineko C zatian adierazitako informazioa jasoko duen jakinarazpena aurkeztea, instalazioei buruz 6. artikuluan arabera jakinarazpena egin bada eta instalazio horietan 3. eta 4. motako lehen eta hurrengo erabilera konfinatuak egin nahi badira.

2. Ezingo dira agintari eskudunaren baimenik gabe abian jarri 3. motako edo hurrengo motetako erabilera konfinatuak; baimena idatziz adierazi beharko da:

a) gehienez ere, jakinarazpen berria aurkeztu eta 45 egunera, aldeztu aurretik instalazioei buruz 3. motako edo hurrengo motetako erabilera konfinatuak egiteko jakinarazpena egin bada eta mota bereko erabilera konfinaturako edo egin nahi den erabilera konfinatua baino goragoko motarako baimena lortzeko baldintzak betetzen badituzte;

b) gehienez ere jakinarazpena aurkeztu eta 90 egunera, gainerako kasuetan.

10. artikulua

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. Estatu kideek agintari eskudun bat edo batzuk izendatuko dituzte, zuzentarau hau aplikatzean hartuko dituzten neurriak aplikatzeko eta 6., 8. eta 9. artikuluetan adierazten diren jakinarazpenak jasotzeko eta jaso izanaren berri emateko.

2. Agintari eskudunak hainbat kontu ziurtatuko ditu; esaterako, jakinarazpenak zuzentarau honetan ezarritakoari jarraiki egindakoak direla, emandako informazioa zehatza eta osoa dela, 4. artikuluko 2. paragrafoan agertzen den ebaluazioa eta erabilera konfinatu mota zuzenak direla eta, hala badagokio, konfinamenduari buruzko neurriak eta bestelako babes-neurriak, hondakinen kudeaketa eta larrialdiei eman beharreko erantzuna egokiak direla.

3. Beharrezkoa bada, agintari eskudunek:

a) erabiltzaileari eskatu ahal diote informazio gehiago emateko, proposatutako erabilera konfinatuaren baldintzak aldatzeko edo delako erabilera konfinatuari esleitutako mota aldatzeko. Kasu honetan, proposatutako erabilera konfinatua abian ez jartzeko eskaera egin dezake agintari eskudunak, eta, dagoeneko abian bada, bertan behera uzteko edo agintari eskudunak onartu arte eteteko eska dezake, lortutako informazio osagarriari edo erabilera konfinaturako baldintzak aldatzeari jarraiki;

b) erabilera konfinatua onartzeko epea mugatu, edo baldintza espezifiko jakinen mendean jarri.

4. 8. eta 9. artikuluetan aipatzen diren epeak zenbatzeko, ez dira kontuan hartuko:

a) agintari eskuduna jakinarazleari 3 idatz-zatiko a) letraren arabera eskatutako informazio osagarriaren zain dagoen denbora

b) 12. artikulua erabera inkesta publiko bat edo kontsulta bat egiten emandako denbora.

11. artikulua

1. Erabiltzaileak beste informazio baten berri izaten duenean edo erabilera konfinatua aldatzen duenean, erabilera horrek izan ditzakeen arriskueta eragin esanguratsua izanik, agintari eskudunari lehenbailehen jakinaraziko zaio, eta ezarritako jakinarazpena aldatu egingo da 6., 8. eta 9. artikuluei jarraiki.

2. Agintari eskudunak, gerora, erabilera konfinatu horrek izan ditzakeen arriskueta eragin esanguratsua izan dezakeen informazioa eskuratzen badu, agintariak erabilera konfinatuaren baldintzak aldatzeko, geldiarazteko edo amaitutzat emateko eska diezaike erabiltzaileari.

12. artikulua

Bazter utzi gabe 18. artikuluan araututakoa, estatu kide batek, egoki irizten dionean, xedatu ahal du kontsulta egin dakiola jendeari erabilera konfinatuaren alderdiei buruz.

13. artikulua

1. Erabilera konfinatua abian jarri aurretik, agintari eskudunek ziurtatuko dute:

a) larrialdi-plan bat egin izana, erabilera konfinatueta konfinamendu-neurrien akatsek instalazioen kanpoan dauden pertsonengan edo ingurumenean arrisku larria (unean bertan edo gerora) eragin dezaketenerako. Hala ere, ez da halakorik gertatuko larrialdi-plana, ezaugarri horiekikoa, dagoeneko eginda dagoenean Erkidegoko beste legedi bat betez;

b) istripurik gertatuz gero, kaltetuak izan daitezkeen erakunde eta agintari guztiek larrialdi-planei buruzko informazio egokia dutela, haiek eskatu beharrik izan gabe. Informazioa eguneratu egingo da tarteka. Horrez gain, informazioa jendearen eskura jarriko da.

2. Aldi berean, dagokion estatu kideak, interesa erakusten duten gainerako estatu kideei helaraziko die bere herritarrei zabalduetako informazio hori berori, eta oinarri gisa erabiliko da beren alde biko harremanetan behar den edozein kontsulta egiteko.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

14. artikulua

1. Estatu kideek beharrezko neurriak hartuko dituzte, erabiltzaileak, istripurik gertatuz gero, berehala ohartaraz dezan 10. artikuluan azaltzen den agintari eskuduna eta honako informazio hau eman dezan:

- a) istripuaren egoera;
- b) zein eta zenbat GEM diren;
- c) istripuak herritarrengan eta ingurumenean izandako ondorioak ebaluatzeko beharrezko informazioa;
- d) hartutako neurriak.

2. 1. paragrafoari jarraiki, informazioa eman ondoren, estatu kideei eskatuko zaie:

- a) beharrezko larrialdi-neurriak hartuko dituztela bermatzea, eta istripuaren eragina jasan dezaketen estatu kide guztiei berehala ohartaraztea;
- b) ahal denean, istripuaren analisi oso bat egiteko beharrezko informazioa biltzea eta, hala badagokio, etorkizunean halako istripurik ez gertatzeko edota haren ondorioak txikiagotzeko gomendioak egitea.

15. artikulua

1. Estatu kideek:

b) istripurik izanez gero kalteak jasan ditzaketen beste estatu batzuekin kontsultak egingo dituzte larrialdi-planen aplikaziorako proposamenaren inguruan;

b) Zuzentarau honen aplikazio-eremuan gertatutako istripu guztien berri emango diote Batzordeari, ahalik arinen, zenbait xehetasun adierazita: istripua nola gertatu den, zein eta zenbat GEM diren, hartutako neurriak eta haien eraginkortasuna. Horrez gain, istripuaren analisia egingo dute, istripuaren eraginak txikiagotzeko eta etorkizunean halako istripurik ez gertatzeko gomendioak adierazita.

2. Batzordeak, estatu kideei kontsulta eginda, 1. paragrafoan azaltzen den informazioa trukatzeko prozedura ezarriko du. Halaber, Zuzentarau honen aplikazio-eremuan sartzen diren istripuen erregistro bat egin eta estatu kideen eskura jarriko du; bertan azalduko dira istripuaren kausen analisia, jasotako esperientzia eta etorkizunean halako istripurik ez gertatzeko hartutako neurriak. .

16. artikulua

Estatu kideak arduratuko dira agintari eskudunek ikuskapenak antolatu eta bestelako kontrol-neurriak har ditzaten, erabiltzaileak zuzentarau honetan jasotakoa betetzen duela bermatzeko.

17. artikulua

1. Estatu kideek, urte bakoitzaren amaieran, 3. eta 4. motako erabilera konfinatuei buruzko sintesi-txosten bat bidali beharko diote Batzordeari (urte horretan jakinarazitakoak izango dira, 9. artikuluari jarraiki), eta delako erabilera konfinatuaren deskribapena, helburua eta arriskuak adieraziko dira bertan.

2. Hiru urtean behin, 2003ko ekainaren 5ean lehenbizi, estatu kideek zuzentarau honen inguruan izandako esperientziari buruzko sintesi-txosten bat bidaliko diote Batzordeari.

3. Hiru urtean behin, 2004ko ekainaren 5ean lehen aldiz, Batzordeak 2. paragrafoan aipatzen den txostenei buruzko laburpena argitaratuko du.

4. Batzordeak zuzentarau honen aplikazioari eta antzeko gaiei buruzko informazio estatistiko orokorra argitara dezake; betiere, informazio hori erabiltzaile baten postu lehiakorrerako kaltegarria ez bada.

18. artikulua

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. Informazio horren berri izateak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren [8] 2003/4/EE Zuzentarauaren 4. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako elementu bati edo batzuei eragiten badie, jakinarazleak sekretuan gorde beharko litzatekeen informazioa adierazi ahaliko du zuzentarau honetan xedatutakoaren arabera egindako jakinarazpenetan. Horrelakoetan, ziurtagiri egiaztagarri bat eskaini beharko da.

Agintari eskudunak erabakiko du, jakinarazleari kontsulta egin ondoren, zein den sekretuan gorde beharreko informazioa, eta horren berri emango dio jakinarazleari.

2. Informazio hau ez da inola ere sekretuan gordeko, 6., 8. eta 9. artikuluen arabera aurkezten denean:

a) GEMen ezaugarri orokorrak, jakinarazlearen izena eta helbidea, eta erabilera-lekua;

b) erabilera konfinatu mota eta konfinamendu-neurriak;

c) aurreikus daitezkeen eraginaren ebaluazioa eta, bereziki, giza osasunerako eta ingurumenerako edozein eragin kaltegarri.

3. Batzordeak eta agintari eskudunak uko egingo diote hirugarrenei 1. paragrafoko hirugarren lerrokadaren arabera isilpekotzat jotako informaziorik, baldin eta zuzentarau hau betez beste nolabait jakinarazi edo eman bazaie; gainera, jasotako datuen jabetza intelektualaren eskubideak babestuko dituzte.

4. Jakinarazleak, edozein arrazoiengatik, jakinarazpena bertan behera uzten badu, agintari eskudunak informazioaren konfidentzialtasuna errespetatu beharko du.

19. artikulua

II., III., IV. eta V. eranskinak aurrerapen teknikora egokitzeko eta II. eranskinen C zatia egokitzeko neurriak, zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko beharrezkoak, 20. artikuluko 2. paragrafoan adierazitako kontrol-dun arautze-prozedura betez hartu behar dira.

20. artikulua

1. Batzordeak Komite baten laguntza izango du.

2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaionean, 1999/468/EE Erabakiko 5. bis artikuluko 1etik 4ra bitarteko paragrafoak eta 7. artikulua aplikatuko dira, eta 8. artikuluan xedatutakoa ere beteko da.

3. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaionean, 1999/468/EE Erabakiko 5. eta 7. artikulua aplikatuko dira, 8. artikuluan xedatutakoa ere beteko da.

1999/468/EE Erabakiko 5. artikuluko 6. paragrafoan adierazitako epea hiru hilabetekoa da.

21. artikulua

VI. eranskinaren A zatian adierazten diren zuzentaruaren bidez aldatutako 90/219/EEE zuzentaru indargabetuta geratuko da. Nolanahi ere, zuzentaru honek ez du eraginik estatu kideen betebeharren gainean, zuzentaru estatuko zuzenbidean sartzeko VI. eranskinen B zatian azaltzen diren epeei buruz, .

Indargabetutako zuzentaruari egindako erreferentziak zuzentaru honi egindakotzat hartuko dira, eta VII. eranskinen korrespondentzia-taularen arabera irakurriko dira.

22. artikulua

Zuzentaru hau indarrean sartuko da Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratzen denetik hogeit hamar egunera.

23. artikulua

Estatu kideak dira zuzentaru honen hartzaile.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Estrasburgon emana, 2009ko maiatzaren 6an.

Europako Parlamentuaren izenean,

Lehendakaria

H.-G. Pöttering

Kontseiluaren izenean,

Lehendakaria

J. Kohout

[1] C 162 EO, 2008/06/25ekoa, 85. or.

[2] Europako Parlamentuaren irizpena, 2008ko urriaren 21ekoa (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2009ko martxoaren 30ekoa.

[3] L 117 EO, 1990/05/8koa, 1. or.

[4] Ikus VI. eranskineko A zatia.

[5] L 106 EO, 2001/04/17koa, 1. or.

[6] L 262 EO, 2000/10/17koa, 21. or.

[7] L 184 EO, 1999/07/17koa, 23. or.

[8] L 41 EO, 2003/02/14koa, 26. or.

ANEXO I

PARTE A

Las técnicas de modificación genética a que se refiere el artículo 2, letra b), inciso i), son, entre otras:

1. Técnicas de recombinación del ácido nucleico, que incluyan la formación de combinaciones nuevas de material genético mediante la inserción de moléculas de ácido nucleico —obtenidas por cualquier medio fuera de un organismo— en un virus, plásmido bacteriano u otro sistema de vector y su incorporación a un organismo hospedador en el que no se encuentren de forma natural pero puedan seguir reproduciéndose.
2. Técnicas que suponen la incorporación directa en un microorganismo de material hereditario preparado fuera del microorganismo, incluidas la microinyección y la microencapsulación.
3. Técnicas de fusión de células o de hibridación en las que se forman células vivas con nuevas combinaciones de material genético hereditario, mediante la fusión de dos o más células utilizando métodos que no se producen naturalmente.

PARTE B

Técnicas a que se refiere el artículo 2, letra b), inciso ii), que no se consideran causantes de una modificación genética, a condición de que no supongan la utilización de moléculas de ácido nucleico recombinante o de MMG obtenidos mediante técnicas o métodos distintos de los que quedan excluidos en virtud de la parte A del anexo II:

- 1) fertilización *in vitro*;
 - 2) procesos naturales como la conjugación, la transducción y la transformación;
 - 3) inducción poliploide.
-

ANEXO II

PARTE A

Técnicas o métodos de modificación genética que conduzcan a la formación de microorganismos que deberán excluirse de la Directiva, a condición de que no impliquen la utilización de moléculas de ácido nucleico recombinante ni de MMG distintos de los obtenidos con una o varias de las técnicas o métodos relacionados a continuación:

1. Mutagénesis.
2. Fusión celular (incluida la fusión de protoplastos) de especies procarióticas con intercambio de material genético por procesos fisiológicos conocidos.
3. Fusión celular (incluida la fusión de protoplastos) de células de cualquier especie eucariótica, incluida la producción de hibridomas y la fusión de células vegetales.
4. Autoclonación, consistente en la extracción de secuencias de ácido nucleico de una célula de un organismo, que puede ir o no seguida de la inserción total o parcial de dicho ácido nucleico (o de un equivalente sintético) —con o sin fases enzimáticas o mecánicas previas— en células de la misma especie o de una especie que presente características filogenéticas muy similares, que puedan intercambiar material genético por procesos fisiológicos naturales, siempre que sea improbable que el microorganismo resultante sea patógeno para las personas, los animales o los vegetales.

La autoclonación puede incluir el empleo de vectores recombinantes en relación con los cuales se disponga de una larga historia de utilización segura en los microorganismos correspondientes.

PARTE B

Criterios por los que se establece la inocuidad de los MMG para la salud humana y el medio ambiente

En el presente anexo se describen en términos generales los criterios que han de cumplirse para establecer si un MMG es inocuo para la salud humana y el medio ambiente, y puede, por tanto, incluirse en la parte C del mismo. Las notas orientativas de carácter técnico podrán elaborarse con arreglo al procedimiento de reglamentación contemplado en el artículo 20, apartado 3, con el fin de facilitar la aplicación y aclaración del presente anexo.

1. Introducción

Los tipos de MMG relacionados en la parte C de conformidad con el procedimiento de reglamentación con control contemplado en el artículo 20, apartado 2, quedarán excluidos del ámbito de aplicación de la presente Directiva. Los MMG se incluirán en la lista caso por caso. Únicamente podrán excluirse del ámbito de aplicación los MMG identificados de forma inequívoca y en el contexto de las utilizaciones confinadas tal como se definen en el artículo 2, letra c). Dicha exclusión no se aplicará a las liberaciones intencionales de MMG. Para poder incluir un MMG en la parte C, deberá probarse que se cumplen los criterios señalados a continuación.

2. Criterios generales**2.1. Comprobación/acreditación de la cepa**

Deberá establecerse con precisión la identidad de la cepa, así como conocerse y comprobarse la modificación.

2.2. Acreditación y establecimiento de la inocuidad

Deberá acreditarse la inocuidad del organismo mediante un expediente documental.

